

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 90.000 euro emanda finantzatuko du arte eszenikoen 9 proiekturen ekoizpena

Balorazio onena jaso duten hiru proiektuek (Tdiferencia, Trokolo Teatro eta La Nave Producciones Teatrales konpainienak) bira egingo dute Nafarroako antzertokietan zehar.

Lunes, 26 de mayo de 2014

Nafarroako Gobernuak 90.000 euro emanda finantzatuko ditu Foru Komunitateko bederatzi konpainiaren arte eszenikoko proiektuak. Enpresa eta profesionalentzako arte eszenikoaren ekoizpenerako diru-laguntzen deialdira aurkeztu ziren proiektu horiek.

Honako erakundeen artean banatuko da diru kopuru osoa: Tdiferencia, S.L., 17.069,25 euro; Trokolo Teatro, 6.156 euro; La Nave Producciones Teatrales S.L., 9.744 euro; R.M. Management y Producción S.L.U., 5.500 euro; Carmen Larraz, 12.301 euro; David Echeverría, 5.660 euro; Itsaso Iribarren, 4.031 euro; Cronopia Films S.L., 25.900 euro; Ana Maestrojuán, 3.638,75 euro.

Gainera, deialdiak aukera emango die balorazio handiena lortu duten hiru proiektuei (Tdiferencia, Trokolo Teatro eta La Nave Producciones Teatrales konpainienak) Kulturako Zuzendaritza Nagusiak sustatu eta batera finantzatutako bira egiteko Nafarroako hainbat antzertokitan zehar.

Azpimarratzekoa da diru-laguntza jaso duten proposamenen aniztasuna, izan ere, haurrentzako eta helduentzako antzerkiak zein musika, dantza, zinema edo zirkuarekin lotutako ikuskizunak dira.

Tdiferencia S.L. enpresaren proiektua "Caperucita Rock / Txanogorritxo Rock" izeneko familia osoarentzako ikuskizun musikala da, eta hiru lengoia hauek bateratzen dituena: antzerkia, musika eta magia. Euskaraz eta gaztelaniaz egingo da eta bertsio bakoitzak aktore-zerrenda bana izango du.

Trokolo Teatro konpainiak "Como una cabra" ikuskizunarekin konpainiaren beraren lanen clown izaera mantendu eta sakontzen du. Bi aktorek antzertzen dute eta familian ikustekoa da.

La Nave Producciones enpresak "El pleito de Areusa o gallina vieja hace buen caldo" proiektua aurkeztu du. Urrezko Mendearen estiloko obra dramatiko da, "La celestina" lanari jarraipena ematen dion parodia.

R.M. Management y Producción S.L.U. enpresak "Victoria Kamhi habla de

Joaquín Rodrigo" kontzertu-ikuskizuna proposatu du, protagonistak "Aranjuezko kontzertua" obraren egilearekin batera bizi izandakoari buruzkoa, piano, gitarra eta ahotserako lanez osatutakoa.

Carmen Larraz hautatu da "Flecha rota" izeneko dantza-ikuskizuna aurkezteagatik. Ekialdeko estetika du eta ekialdea iradokitzen du, zuzeneko musikak lagunduta, eta zirkuko teknikak eta antzerkia uztartzen ditu.

David Echeverriak "Basuritas" musikala aurkeztu du, haurrentzat eta familiarentzat. Musika, antzerkia eta dantza bateratzen dituen ikuskizun dibertigarria da, kontsumo ugarian oinarrituriko gizarteaz jabetzea helburu duena.

Itsaso Iribarrenek "Just for the money. Una historia de circo" lana aurkeztu du. Zirku garaikideari buruzko ikerketa eszenikoa egin du, izan ere, diziplina hori asko aldatu da azken urteetan eta beste arte eszenikoen parekoa da dagoeneko.

Cronopia Films konpainiak "Una pareja cualquiera" lana aurkeztu du. Komedia iluna da, helduei zuzendurikoa. "Salto de Eje" enpresarekin batera ekoiztako lana da. Enpresa Miguel Ángel Calvo Buttini nafarrarena da.

Amaitzeko, Ana Maestrojuánek "Tres árboles de piedra" obra aurkeztu du, argazkilaritza, pentsamendua eta musika uztartzen dituen proiektua, helduei zuzendurikoa.

2013ko deialdia

Gogorarazi behar da 2013ko deialdiari esker ekoizpen eszenikoen 5 proiektuk (antzerkia, dantza eta magia) jaso ahal izan zutela diru-laguntza, orduan ere 90.000 euro guztira.

Honako hauek izan ziren onuradunak: La Nave ("El nombre de la rosa"), Pasadas las cuatro ("Plok, plok... plik!"), Atikus Teatro ("Pobre de mí, tío Vania"), Fueeradeleje ("Meeting point") eta Compañía de circo